

Superheroiei jarriak

I

Ez dabilta ondo gure herria eta hizkuntza, aurrera egin nahi, baina ezin aurrerantza bultza; ezin aurrerantza bultza herria eta hizkuntza, agian beharko dugu superheroien laguntza.



IÑIGO AZKONA

IV

Batman laguntzera dator, saguzar marka ortzian, Robin ondoan duela badator ziztu bizian. Saguzar marka ortzian badator ziztu bizian, baina Batmobila ere motel doa A8an.

II

Superman izan da gertu azaldutako lehena, baina herria ikusi eta zer-nolako pena! Azaldutako lehena eta zer-nolako pena, elkar ez ulertzea da kriptonitarik txarrena.

V

Spiderman dator eta jo behar dugu alarma, armiarma zabaldu da gure lurraldean barna. Gure lurraldean barna jo behar dugu alarma, konponbideak ez dauka ez army eta ez arma.

III

Catwoman beti izan da hain superheroi bortitza, baina gurean beldur da katutxo soil baten gisa. Katutxo soil baten gisa hain superheroi bortitza, txakurrak herri honetan sueltoegi ei dabilta.

VI

Izotzezko gizonaren itxaropena akabo, gure herriaren alde ez dago heroi gehiago. Itxaropena akabo ez dago heroi gehiago, sua ez da falta, baina dena izoztuta dago.